

Alkate,  
ez ditugu kulunkak eta  
txirristak nahi,  
Herria nahi dugu.



FRATO'02

**Haurren Hirien Sarea**  
Red Ciudades de la Infancia de Euskadi


# Udalak

Gure komunitateen hazkundera berauek osatzen ditugun pertsonen hazkunderaren arabera da eta, halaber, komunitateek hazteko eskaintzen dizkiguten aukerak dira -harremanak, espazio fisiko eta egiturak- gure ikasketa baldintzatzen dutenak.

Elkarren arteko mendekotasun harreman honek kolektibitatea, gizabanakoak eta komunitatean zerbitzu betekizunak dituztenen (politikari, teknikari, hezitzaile e.a.) arteko ardura partekatua egotea dakar; eta pertsona hauetako bakoitzaren premia, ahalmen eta nahien aniztasunari erantzungo dioten baldintzak eta tokiko politikak eskatzen ditu.

# HerriLaborategia

HerriLaborategia erakunde publiko eta pribatuak (enpresa eta elkarteak, Eusko Jaurlaritzak, diputazioak, unibertsitatea...) osatutako lantaldea da. Bere helburua komunitatea ikas-ingurune gisan sustatzea da, esperientzia ezberdinak saretuz eta noranzko honetako politiken garapena babestuz, lan eta lankidetzak ildo ezberdinen bitartez.



# Innobasque

Innobasquek eragile publiko eta pribatuen arteko elkarlana sustatzen du gure gizartea eraldatuko duten berrikuntza proiektuak garatzeko. Horretarako ezinbestekotzat jotzen dugu gobernatzeko erak, balioak, pertsonen garapen integrala... bezalako arloetan berritzea.

Beharrian eta testuinguruen aniztasuna aintzat hartuz, garrantzitsu deritzogu komunitate bakoitzak ikas-ingurune gisan eratzeko bere modua aurkitzeari. Bestalde, esperientzia bakoitza babestu eta indartuko duten puntu komun eta elkartze guneak edukitzea baliagarri izan daitekeela ikusten dugu.

Horregatik aurkezten dizuegu, liburuxka honetan laburbiltzen dugun proposamen hau, eta UmHerri sarearekin bat egitera animatzen zaituztegu (La Città dei Bambini Nazioarteko Sarearen barruan).

Proposamen erraz eta eraldatzailea duzue hau, gure sarearen minimo komuna izan daitekeena, eta aldi berean komunitate bakoitzaren berezitasunen arabera moldagarria dena.



# Haurren Hirien Sarea



*Haurren Hiria*, Francesco Tonucciren proposamena, hiria "umetasun" parametroaren arabera eraldatzeko proiektu politikoa da: *begirada aldatu edo begiak beheratu ume baten altueraraino, begien bistatik inor ez galtzeko.*

Proposamena bi ekintza zehatzen bidez hastea da:

- Umeen Kontseilua sortzea: Alkatea eta ume talde baten arteko komunikazioa.
- Eskolara Lagunekin proiektua abiatzea: espazio komunean-publikoan umeekin elkarbizitea.



FRATO 98

Proposamen honek, ekimen erraz bi hauen bitartez, hazteko baldintzak mugatzen dituzten hiru elementu nagusietan eragiteko aukera ematen du.

**Espazioa.**

**edo Hiri Eredua.** Azken hamarkadatan, garapen eta eraldaketarako parametrotzat hiritar gizon nagusi eta langilea hartzerakoan, hiriak bere jatorrizko ezaugarrietako bat galdu du: pertsonen arteko topagune eta elkartrukerako gune izatearena, espazio partekatu eta sistemikoa, elkarmenpekotasunekoa izatea. Patioek, espaloiek, kale eta plazek kotxeari eta merkataritzari lotutako funtzioak hartu dituzte geroz eta gehiago, hiritarrei kenduz.

**Harremanak.**

**edo Harreman Estiloak.** Hiritarren arteko harremanen hondatzeak, baita hiritarren eta lan administratibo edo tokiko kudeaketa egiten dutenekikoak ere (lotura afektiborik eza, belaunaldi arteko atxikitasunik eza, bakardadea, elkarrekiko mesfidantza...), gure aberastasuna, aukerak eta hazteko gaitasunak gutxiagotzen ditu.

**Pertsonak.**

**edo Autonomia eta Partaidetza.** Autonomo eta "besteekin batera" izateko pertsonen gaitasun ukaezinak, baita prozesu partekatuetan parte hartzeak ere, ez dute baldintza hauen baitan lekurik. Umeek ordaintzen duten kostua (oinarriko beharrianak asetzeko ezintasuna, adibidez lagunekin jolastekoa nagusien kontrolpean egon gabe, edo bizilagunekin elkar-laguntza harremanak eraikitzekoa, familia inguruneaz haratagoko lotura komunitarioak eraikiz), oso altua da, bai pertsonalki, bai sozialki, eta ezin dugu zilegitu.

# el proyecto

---



# UMEEN KONTSEILUA

Alkatetzaren kontsultarako organoa da; hiria eta tokiko kudeaketarekin zerikusia duten gaiei buruzko bere ikuspegia eskaintzen dio.

Umeen partaidetzarako modu zuzen eta esanguratsuenetakoa da, baina batez ere arduradun politikoentzako ikasketa prozesua da aniztasunarekiko ulermenean eta harremanean.

## Nola egiten da?



**1. Alkate bezala, zuk erabakitzen duzu.** Zure komunitateko umeei aholku eskatzea erabakitzen duzu.

**2. Zure Komunitatea informatzen duzu.** Zertan datza? zein da bere balioa? eta bere helburuak? Informazio hau bereziki umeei, familiei eta ikastetxeei helarazi behar zaie.

**3. Laguntza bilatzen duzu.** Hezitzaile talde bat behar duzu, umeei lana koordinatuko duena eta lagunduko zaituena.

**4. Antolatzen duzue.** Helburuak, moduak eta oinarrizko azpiegiturak definitu behar dira. Adibidez: bilera gela bat, lanerako behar diren materialak, garraioak....

**5. Kontseilua deitzen duzue.** Umeak informatu eta gonbidatzea besterik ez zaizu falta, gero zozketa antolatu eta lehen bilerara deitzea.



# 1. Alkatearen Erabakia

*Alkateak umeei hiriaren gobernua hobetzen lagun dezaketen uste osoa duenean jaiotzen da.*

1. Umeen Kontseilua Alkatearen konpromiso zuzena da. Alkatea da umeen ahotsa -ere- aditu nahi duela erabakitzen duena. Eta Alkatea da umeei aholku eskatzen diena.

2. Umeen Kontseilua hiriaren arazoei buruz helduei "aholku ematen dien" ume talde batek osotzen du: umeei eztabaidatu egiten dute, ezagutzen eta kezkatzen dituzten gaiak buruz noski, ezegokia edo bidegabekoa iruditzen zaiena salatuz, ideia berriak proposatu eta landuz e.a.

3. Proposatzen diren gaiak Alkatearen bitartez heltzen zaizkie, bere kezka edo jakin-nahie lotuta edo zinegotzi zein batzordeen galderak ekarriz.


4. Araua da bozketarik ez egitea. Ideia eta iritzien aniztasuna da Kontseiluak Alkateari eskaintzen dion aberastasuna. Aniztasunaren aldeko hautua da, edozein ideia lagundu ahal baitigu begirada aldatzen.

5. Hezitzaileez gain, nahi beste aldiz parte hartzeko eskubidea daukan pertsona heldu bakarrik Alkatea da. Hala ere, zenbaitetan, umeei beste pertsona heldu baten parte hartzea eskatzen dute (teknikariak, hiritarrak, adituak...) dokumentatu ahal izateko ala informazio bereziren bat eskuratzeko.

**Umeei laguntza eskatu beharra daukagu.**

Haien eskubidea da gainera

(Umeen Eskubideen Nazioarteko Hitzarmenaren 12, 13, 14, 15 eta 17. artikulua. Hitzarmen hau NBEko estatuek 1989an sinatu zuten.)



## 2. Komunitatea informatu

---

*Behin erabakia hartuta, komunitateari jakinarazi behar zaio proiektua abiatuko dela. Zertan datzan azaldu eta zertarako jaiotzen den Umeen Kontseilua, bere balio eta helburuak.*

Eman daitezkeen zenbait urrats:


1. **Umeekiko konpromisoa eta laguntza eskatzeko beharra adierazi:** prentsaurrekoa, udal aldizkaria, webgunea...
2. **Ikastetxeetako zuzendari/arduradunekin edota Gurasoen Elkarteeekin bildu proiektua azaltzeko:** zer eskatzen zaien eta haiengandik zer behar dugun, Alkatearen eta Kontseiluan parte hartzen duten umeen konpromisoak e.a.

## 3. Hezitzaile Taldea

---

*Hezitzaile taldea zehaztu beharra dago, 1-3 lagun, daukagun ume kopurua eta baliabideen arabera. Behar duten formakuntza eskaini (HerriLaborategia), baita UmHerri sarean parte hartzea ere, beste udalerriegandik eta haiekin batera ikasteko.*

1. **Hezitzaileak nortzuk izango diren udalerrri bakoitzaren berezitasunen arabera izan daiteke:** enpresa bat, udal teknikariak, gizarte hezitzaileak e.a. Aniztasuna ulertu eta laguntzeko prestakuntza, eta prozesu partekatu eta parte hartzaileak ahalbidetzeko gaitasuna duten pertsonak.
2. **HerriLaborategiak, Innobasqueren eskutik, formakuntza eskaintzen du** "teknikarientzako gaikuntza" ikastaroan: 2016 ikasturtean egingo den peer-to-peer ikasketa prozesua eta udalerrri bakoitzeko proiektuari aholkularitza eta jarraipena.





## 4. Azpiegitura Sortu

---

*Hasi aurretik beharrezkoa da antolakuntza-beharrak eta behar diren azpiegitura minimoak ondo zehaztea. Udallerri bakoitzak, bere errealitate partikularraren arabera, bere eredu propioa kudeatu eta garatu beharko du.*

**1. Aukeraketa:** Umeen Kontseilua ume kopuru mugatu batek osotzen du (hogei inguru), eta euren konpromisoak bi urtekoa da. Urtero Kontseiluaren erdia berritzen da, lan-dinamika mantenduz urte batetik bestera eta umeek elkar lagundu ahal izan dezaten. Umeen aukeraketa zozketa bidez egiten da.

**2. Espazioa:** garrantzitsua da taldeak Umeen Kontseiluarentzat espreski pentsatutako espazio batean lan egin ahal izatea, saio ezberdinetan sortutako materialak bertan gorde eta zabaldu ahal izateko. Kontseiluaren egoitzaren pareta eta mahaiek euren lanaren memoria kolektiboa gordeko dute. Lan honek ezin ditu erabili eskolako memoriaren ohiko tresnak, hala nola, ohar liburuxkak, fitxak edo laburpenak.

**3. Materialak:** material minimo batzuk beharrezkoak dira euren lana garatu ahal izateko, baita prozesuan zehar sortuko diren bestelako beharrian espezifikoak ere: bulegoko materialak, mapak, ordenagailua e.a. Hamaiketako osasuntsu bat (fruta adibidez) gomendagarria da, Kontseiluaren bilerek goiz edo arratsalde oso bat irauten dutela kontutan hartuz.

**4. Garraioak:** Udalak (eta hezitzaileek) umeen garraioen ardura har dezake Kontseiluaren bilera egunetan. Udallerriaren tamaina eta ikastetxe kopurua aintzat hartuta, antolakuntza hau errazagoa ala konplexuagoa izango da.

**Umeei aditza aniztasunaren aldeko apustua da.** Euren hiriarekiko ikuspuntuak pertsona helduon ohiko begiradaren mugak aberastu eta urratzen ditu.



## 5. Deialdi Publikoa

---

*Umeak informatu: Zer den Umeen Kontseilua, nola parte hartu. Zozketa egin partu hartu nahi duten guztien artean eta aukeratutako umeen familien baimenak eskuratu Kontseilua eratzeko.*

*Urteko bileren egutegia osatu eta inplikatuak jakinarazi: umeak, ikastetxeak, familiak.*

**1. Udalerriko umei izena emateko epea jakinarazten zaie.** Erabakitzen den adina horretako ume guztiek parte hartu dezakete Kontseiluan, nahi izanez gero. Zozketa ospatu ostean, ume eta familia bakoitzari galdegiten zaio behin betiko baimena eman dezaten.

**2. Lehen harrera bilera bat antolatzen da familia, ume, hezitzaile eta Alkatearekin,** Umeen Kontseilua zer den eta nola funtzionatzen duen zehatz-mehatz azaltzeko, baita ume edo gurasoek izan ditzaketen zalantzak argitzeko ere.

**3. Behar diren informazio eta baimenak sinatu eta jasotzen dira** familia eta hezitzaile/Udalaren artean: argazki eta bideoak hartzeko baimenak, gurasoen harremanetarako telefono eta helbideak, zaindu beharreko berezitasunak, e.a. Urteko bileren egutegia ematen zaie ere.


## 6. Lehen Topaketa

---

*Dena prest dago lehen bilerarako.*

**1. Alkateak Kontseilua eskatzen du.** Bere kezkak, premiazko edo gaurkotasuneko kontuak dakartzkio Kontseiluari.

... Une honetatik aurrera Kontseilua proposamenak eratzera elkartzen da eta Alkateza eta Umeen arteko komunikazio kanala zabaltzen da.





“Leioako umeekin elkartzeak hiriaren ikuspuntu guztiz bestelakoa eman dit. Eta orain badakit euren proposamenak aditu eta arreta jartzea haien aldeko apustua egitea dela, haien beharrezanaren eta osasunaren aldekoa, baina epe luzera, zalantzarik gabe, guztion ongizatearen aldekoa ere.”

Mari Carmen Urbieta  
LEIOAKO ALKATEA

Hirigintza arloko adituak bezalaxe,  
Umeen Kontseiluak tokiko kudeaketan laguntzen gaitu,  
**aniztasunean eta berrikuntzan adituak baitira.**

# ESKOLARA LAGUNEKIN

Umeei herrian mugimendu autonomia itzultzeko udal apustua da: beren herria autonomiaz erabili ahal izan dezaten, barneko eta norberarenak diren esperientziak lapurtu edo ukatzen ez zaizkiela. Orain dela 20 edo 30 urte arte guztiz normala zen egoera, gaur egun ezinezkotzat jotzen da.

**Eskolara Lagunekin**, gainera, hiritargo guztiarentzat komunitate loturak eta elkarbizitzarako espazio osasuntsu eta seguruak berreskuratzeko bide zuzen eta eraginkorra da.

## Zelan egiten da?



**1. Bidelagunak behar dituzu.** Bilatu zure helburu berberako eta gizarte-hedapena aberastuko duen lantaldea.

**2. Komunitatea informatu.** Zertan datza? zein da bere balioa? bere helburuak? Familiek bereziki seguru sentitu beharra dute.

**3. Diagnostikoa egin.** Umeein batera ikastetxeetara joateko ohiko ibilbideak edo ibilbide posibleak aztertzen dituzue, baita, ibilbideak konpainian egin ahal izateko, beharrianak eta aukerak ere.

**4. Esku hartu.** Beharrezko eta posible izanez gero, ibilbide horiek hobetu eta topaguneak markatzen dituzue.

**5. Ekintza Sinbolikoa ospatu.** Behar beharrezkoa ez bada ere, gomendagarria da proiektuari hasiera emango dion ekintza sinboliko bat egitea.

**5+1. Jarraikortasunerako Neurriak.** Garrantzitsua da, behin martxan jarrita, inplikaturako guztien artean esperientziaren jarraikortasuna bermatzeko zenbait neurri zehaztea.



# 1. Bidelagunak Behar Dituzu.

*Espazio publiko-komuna topagune eta ikasgune gisan berregituratzeak erabakitasuna eta administrazioa eta hiritargoaren arteko elkarlana eskatzen du, batez ere nagusiengandik.*


**1. Udal Erabaki eta Inplikatzea.** Ekimen honek zinegotzi ezberdinak eta administrazioaren sektore ezberdinak bustiarazten ditu (Hirigintza, Hezkuntza, udaltzaingoa, gizarte zerbitzuak e.a.) eta Alkateak bermatutako konpromiso komuna eskatzen du.

**2. Hezkuntza Komunitatea.** Zalantzarik gabe, umeek denbora gehien ematen duten "bizi ingurunea" eskola da. Gainera, ardatz honen inguruan biltzen dira nolabait ekimen honetan arituko diren pertsona heldu gehienak: guraso edo beste senideak eta irakasleak.

**3. Merkataria eta kale mailan dabilzan beste hiritarrak.** Elkartean, merkatarien, nagusien, gazte eta nerabeen.. inplikazioak, ekimen honetan parte hartzen duen komunitate-ingurunearen sentsibilizazioari mesede egin diezaioke. Elkartasun eta kooperazio giroa berreraikitzea ekimen honen helburuetako bat da.

**4. Gizarte eragileak eta osasuna.** Gero eta gehiago dira haurrek libreki oinez ibili eta jolastu ahal izan dezaten eskatzen duten pediatra, hezitzaile, osasun-sailak e.a; dela haurren loditasuna ekiditeko, dela ingurunearekiko erantzun eta erreakzio gaitasun egokiak garatzeko. Gainera, gizarte eragile asko ari dira udalerrietan jasangarritasun klabeetan lanean: mugimendu ekologistak, aisialdi elkarteak, txirrindulariak...

**5. Umeek ez dute ezer behar hirian zehar oinez ibiltzeko.** Bakarrik bere familien baimen eta konfiantza, beren komunitatearen babesa eta "umeentzat segurua den hiria guztientzat da segurua" uste partekatua. Haien presentziak kaleetan guztioi dakarkigu onura. Garrantzitsua da -eta partaidetzarako aukera bat- haien ahotsek ere prozesuan parte har dezaten: Umeen Kontseilua, eskolako kontseiluak...



## 2. Komunitatea Informatzea

*Behin erabakia hartuta, komunitateari komunikatu behar zaio proiektua abiatuko dela. Zertan datzan eta zergatik egiten den azaldu, bere balioa eta helburuak aurkeztu.*

Eman daitezkeen zenbait urrats:

**1. Talde Eragile bat osatzea.** Non present (eta konprometituak) egongo diren bidelagun posible guztiak. Denen artean pentsatu eta konponbideak elkarrekin bilatzeko. Administrazioaren sail ezberdinen (eta hiritarren) arteko koordinazio egokia lortzea izaten omen da arazo handienetakoa. Talde honek zehaztu eta proposatuko ditu: kronograma, diagnostiko metodoak, jardunbideak, babesak....

**2. Informazio Bilerak (komunikazio eta sentsibilizazioa):** zuzendaritzekin edo ikastetxeetako arduradunekin, klaustroak, Gurasoen Elkarteak, gizarte eragileak, gazte taldeak, nagusien elkarteak e.a..



### 3. Diagnostikoak

---

Umeekin, familiekin, ikastetxeekin... ikastetxera (edo beste udal espazioetara) joateko ohiko ibilbideak edo ibilbide posibleak, eta beharrian eta aukerak ibilbide horiek konpainiarekin eta autonomiaz egin ahal izatea bermatzea du helburu.

**1. Diagnostiko Partekatua.** Prozesu honi aurre egiteko modu asko dago eta udalerrri bakoitzak bere aukera propioak eta formula bereziak aurkitu beharko ditu: eskolako, auzoko, udalerriko, udal zerbitzuko... Abiatzen garen errealitatea ezagutzea da kontua eta, aldi berean, umeak hirian zehar autonomiaz mugitzea zerk eragozten duen jakitea: beldurrek, hirigintzako oztopoek, puntu beltzek... baita ibilbiderik onenak, topagune posibleak...

Interesgarri suerta daitezkeen beste zenbait alderdi: zenbat ume joaten dira jada oinez? zein da ikastetxe bakoitzean eskolako garraioaren errealitatea? zein da bidegorrien egoera, eta bizikletentzako bestelako beharrianak zein dira?

### 4. Egokitzapena eta Jardunbideak


---

*Diagnostikoetan antzemandako ideia eta beharrianak baloratu eta bideragarri direnei erantzunak eman.*

**1. Epe laburreko Jardunbideak.** Lehen bailehen konpon ditzakegun kontu horietan esku hartu: hiri-hobekuntzak, seinaleak jartzea, udaltzainen formakuntza, topaguneeen diseinua e.a.

- Udalaren aldetik.
- Familien aldetik.
- Ikastexeen aldetik.
- Bestelako eragile/bidelagunen aldetik

**2. Epe luzerako jardunbideak.** Unean-unean ezin egin diren esku hartze horiek jarraikortasunaren babeserako neurriekin lotu. Egutegi bat eta konpromiso argi (eta guztiek ezagun dituzten) batzuk ezarri.



## 5. Abiaraztea

---


Ekimenaren hasiera antolatzeko modu asko dago. Udalerri batzuetan, daukaten tamainagatik, berehala hasi ahal izango da; beste batzuetan egon badagoen praktika bat indartzea izango da gakoa; beste batzuetan pixkanaka-pixkanaka ibili beharko da... Edozein kasutan, garrantzizkoa da lehendabizikoz hasten den lekuetan "hasiera data" bat jartzea, indarrak metatzea eta sinergiak baliatzea erraztuko baitu.

Idea posible batzuk:

1. **Sentiberatze eta Esperimentazio Astea.** Data bat aukeratu (astebete) "martxan jartzea" aktibatzeke. Honek guztion indarren metatzea errazten du eta, aldi berean, esperientziak komunikazio-inpaktua (eta sentiberatzailea) izatea komunitatean.
2. **"Eskolara Lagunekin" Eguna.** Komunitate bakoitzaren baldintza eta erritmoen arabera, egun bat antolatzen has daiteke, non umeen presentzia kaleetan ikusgarria izango den.
3. **Mugikortasun eta Autonomiaren Astea.** Europako Mugikortasun Iraunkorraren Asteko egunak baliatu daitezke esperientzia aktibatzeke. Eta egun bakoitzean mugikortasun modu ezberdin batekin froga egin: bizikleta, oinez, garraio publikoa...
4. **Ekimenaren aurkezpen publikoa:** talde-prentsaurrekoa, formakuntza jardunaldiak, hitzaldiak, mugikortasunaren gaineko jarduerak e.a.

**Umeak bizi diren hiria ingurune Seguru eta bizitzeko egokia da edozeinentzat.**

Hezkuntza arduraren partekatua, zaurgarritasuna eta zaintza, gainera, elementu loteslea dira.








"Erantzukizun politiko eta administratiboa hartzen duten herri eta pertsonen hierarkia bat dute buruan: garraio pribatua-autoak, garraio publikoa, bizikleta eta oinezkoak. Gure proposamena hierarkia horri buelta ematea da, eta egiturazko eta jarrerazko eraldaketak egitea. Haurrek kalean herria seguru bihurtzen dute."

Francesco Tonucci  
ERROMAKO CNR




# prozesua



Innobasquek UmHerri Sarean zuen partehartzea babesteko Laguntze eta Elkarlan-Ikasketa prozesua proposatzen dizue:

- Proiektuaren testuinguruari buruzko ezagutzak eta informazioa eskainiz, eta **helarazten eta barne-konplizitateen bilaketan lagunduz** (Osoko Bilkuran aurkezpena, ikastetxeekin bilerak...)
- Sarearekin bat egiten duten udalerriei, **proiektua martxan jartzen jardungo duten pertsonentzako ikasketa prozesua eskainiz**. Honen barruan:
  - Proiektuaren aurre-diseinu pertsonalizatua (Umeen Kontseilua eta Eskolara Lagunekin) eta zuen udalerrian abiarazteko baliabide beharrezkoen zehaztapena.
  - Teknikarientzako aholku ematea eta gaikuntza: zer den, nola garatzen den...
  - *Peer to peer* laguntza eta ikas-materialen garapena.



INTERESA

BAI

Baiezta Eman  
AZAROAK  
30

Lantegia Behar?

Talde Batzordean  
Partekatu

Arduraduna(k)  
Hautatu

BAI

Herrilab.  
UDALERA

Formakuntza Saioa  
Abenduak  
14-15

Lantegiak

Urtarrilean hasi eta Ekainera arte  
udallerrien zernora propioak abian



informazio gehiago:  
94.4209488 edo info@herrilaborteia.org

